

LUIS ECHEVERRIA ICETA (IN MEMORIAM)

(1911/XI/11-2005/IV/11)

Antton Mitxelena

Aurtengo apirilaren 11ean, larogeita hamairu urtez, hil zen José Luis Echeverria Iceta, zortzi urtez Erretereriako alkate izandako gizona, soinu handirik egin gabe, era diskreto batean, azken urteotan bizi izan zen bezala.

Aita Ataungoa eta ama Usurbilgoa zituen arren, Miarritzen jaio zen 1911ko azaroaren 11ean. Dirudienez, txaleta eraikuntzak momentu ona bizi zuen mendearen hasera hartan Lapurdiko hirian, eta bertan hargintzan ari zen Silverio Antonio, bere aita.

Eskola hasteko garaia iritsitakoan, mutikoa Usurbilera, amonaren etxera, bidaltzea erabaki zuten gurasoek. Bertan egin zituen lehen ikasketak 10 urte bete arte, Anbrosio Zatarain, besteak beste, ikaskide zuelarik. Eskola garaiko argazkiak eskeintzen digun irudian nekerik gabe bereiz daiteke itxura txiki, ernea eta forma lehun eta borobileko Luis mutikoa. Ordenatua eta trebea omen zen, batez ere esku langintzan eta bere ikasketak Donostiako "Artes y Oficios" ikastetxean jarraitu eta osatu zituen, marrazkia ikasirik.

Erretereriara 16 urtekin bizitzera etorri zen eta bertan eman du bizitza osoa, hil den arte.

Gerraren haserako urtean, 1936ean, Madalen kalean jaiotako Angeli Aldazabalekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten: Maribi, Koro eta Sara. Gaur familia ugalduta, 9 hiloba eta 8 birlobez.



Beti familia gizona agertu zitzaigun, bere emaztearen konpainian ikusten genuela, 57 urte zituela Angeli hil zen arte. Kolpe handia gertatu zitzaion emaztearen galera eta horrez geroztik pasian irtetzen zenean, azken egun arte mantendu zuen ohitura, bakarrik ibiltzen zen, lagunekin hitzegtzen gelditzea gogoko bazuen ere.

Tartekatzen zituen paseo hauek, Erretereriatik kanpo bizi diren bi alabei egiten zien astean behingotz bisitarekin.


1946. urtean Pasaiaiko Portuko "Junta de Obras"-eko oposaketak prestatu eta atera zituen eta harrez geroztik bertan aritu zen lanean jubilatzaia arte. Alkate izan zen urtetan ere lanean jarraitu zuen; bere kontratuan agerienez: "encargado liquidador" bezala.

Erretereriako Udal gestiora emaniko urteak (16 denera) eta lanak dira izari soziala ematen diotenak bere pertsonari. Hiru epealditan eta postu desberdinetan aritu zen udaletxean.

Lehen aldian, eta zinegotzi bezala, 1936ko irailetik 1941ko azaro bitarte, Carmelo Recalde alkate zelarik. Bigarren, Juan Los Santosen alkate garaian alkate ordea izan zen, 1949ko otsailetik 1952ko otsaila bitarte. Eta azkenik, Joaquín Pérez Lapazaren heriotzaren ostean, Erretereriako alkate izendatua izan zen. Ardura hori bere gain eramane zuen 1957ko urtarrilaren 4tik 1965ko apirilaren 29 arte.

Urte zailak eta bereziak ziren bere alkateztaren garaikoak, guztiak bezala agian; Erretereriak jasango zuen hazkunde ikaragarriaren lehen urteak genituen haiek eta Birebenen proiektuan oinarritutako Zaldia arkitektoaren "Erretereriako Plan Orokorra"-ren arabera gertatzen hasia zen garapen hori.

Garai hortakoak ditugu Iztieta auzoa, Galtzaborda haserako lanak eta Gabierrota auzoaren has-tapenak. Erretereriako biztanlegoa gorantzako bidean hasi berria zen; geroko krisialdi industrialak, 70.eko hamarkadakoak hain zuzen, bakarrik geldituko zuena.



Zetorrena ikusirik, bi kezka nagusi zituen alkateak, eta horietara bideratu zituen bere ahaleginak. Horrela azaltzen zuen beti bere adierazpenean. Zaila da jakiten zeinek zuen nagusitasuna berarentzat, biak baitira lehen mailakoak.

Kezka nagusietako bat hezkuntzarena zuen. Garaian, Biteri eta Tolarekoak ziren eskola publiko bakarrak eta eskola gehiagoren premia begi bistakoa zen. Denbora hartan eskola pribatuen garrantzia eta kopurua handiagoa zen. Horietako batzuk eskola unitarioak ziren arren. Horien zerrendatze hutsak eskeini diezaguke panorama horren irudi garbia: Rebollar, Aierbe, Nistal ahizpak, Doña Rosa, Magdalena akademia, karidadeko alabak, Gurutzearen alabak, Jesusen Bihotzaren anaiak.

Eskola publiko berrien beharra asetzeko, Alaberga, Calvo Sotelo (gaur Mikel Irastorza) eta Gabierrotako zentroak martxan jarri ziren sasoi horretan.

Uraren ekarpena zen beste kezka nagusia, eztaikit lehenengoa ala bigarrena ote zen. Adineez gora goazenok, oraingo ur oparotasuna eta edertasuna ikusirik, jasan behar izan genituen gabeziak, lehorteak eta ur etenaldiak amets gaizto bezala gogoratzen ditugu, baina egiz gertatutakoak dira eta ez hain aspaldi.

Arazoa konpontzeko ahaleginetan jardun zuen Luis Etxeberriak eta "Karrika-Errekako" uraren ekarpen lanak oso aurreratuak utzi zituen bere aginte garaiaren amaierarako.

Hainbat zerbitzu publiko ere egin izan zen bere alkatetza garaian. Aipagarrienak, behar bada, hauek: Merkatu berria, 1960ko martxoaren 1ean ireki zen eta berarekin batera Udal Alondiga. Udala-
ren azpian Erretereriako lehen liburutegi publikoa ireki zen, ordurarteko gabeziaren gainetik jauzia

eginez. Iztieta Anbulategiko lanak ere oso aurreratuak utzi zituen. Lan hauen aitatasuna ezaguna zaigu garaia bizi izan genuenoi, behar bada erai-kuntzek eta obra materialek arrasto ikuskagarriagoa usten dutelako lan inmaterialek baino.

Horregatik, hain ezagunak ez diren bi aipamen eginez bukatu nahi nuke bere pertsonari egiten ari natzaion hurbilpena.

Batetik, Oarso aldizkarirako izan zuen atxekimendua eta zaletasuna. Azpimarragarriak dira. Bere garaian izan zuen Oarsok bere bigarren agerrialdia (1958-1965) eta bere alkatetzaren amaierarekin batera bigarren aldiz itzali zen urtekaria.

Bestetik, Koldo Mitxelenari eskeini zion omenaldia, 1961eko urtarrilaren 22an. Erretereriak Koldori eskeinitako lehen omenaldia izan zen eta bere udalaren eskutik etorri zitzaion gainera, behar bezala. Deigarria gertatzen zaigu gaur, zer motako erregalua nahi zuen Koldori galdetu ziotenean, honek idazteko makinaren nahia azaldu zuela jakitea. Baina egia hori da eta horrelakoa Udalak eskeini zion oparia. Luis Echeverria alkateak jakin izan zuen garai horretan, distantzia ideologikoen gainetik, filologo handiaren lana eta merezimendua atzematen, onartzen eta eskertzen.

Horrela, omenaldi horrekin, Erretereriako Udalak eta Alkateak haren izenean lehenagoko korporazioko kide batek Mitxelenari eragindako injustizia zuriu zuen eta ordaindu berarekiko sortutako zorra.

Behar bada, keinu horrek lagun diezaguke Luisen nortasuna hurbilagokoa egiten eta ondo ulertarazten digu, zergatik Korporazioko zinegotzi kide batek zioen, Oarso aldizkariako artikuluan, alkatetzaren errelebo garaia iritsi zenean, bere gizatasuna eta sen ona azpimarragarriak zirela.

Goian bego.

